

Nafarroako Esaera Zaharrak. Beintza-Labaien.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Beintza-Labaien.

- 1575 *Alferrarentzat toki onik ez: langillentzat toki txarrik ez.*
- 1576 *Ama kantaria, ta alaba dantzaria.*
- 1577 *Amalau ofizio, amabost miseri.*
- 1578 *Arbol adar igar gabarik ez: eta neskatx eder tatxa gabarik ez.*
Beti ez noski. Oihenart-ek: "Zurzai orok, adar eihar" (535).
- 1579 *Aitta nolako, semea alako.*
Baña ez beti.
- 1580 *Aukera maukera, azkeneko akerra.*
Beste lekuetan "azkenean okerra".
- 1581 *Besteen bearrean dagona, beti gaizki.*
Gaizki izango da, guzia bestek ematea nai duena; ez ordea berak al duena
egiñez bizi dena.
- 1582 *Etxeak alaba bakarra, amak zartzian estimazio txarra.*
- 1583 *Gauean berandu, goizean maingu.*
Goizean jaikitzeke ta lanerako nagi.
- 1584 *Gaztetako alferra, zartu-ta nekez betea.*
- 1585 *Gizon lepo-miak, burua arin.*
- 1586 *Gizona ona, ematen duen arte: akitzen denean, sobrante.*
- 1587 *Gizon tabernazalia, etxian andriarentzat miseria.*
- 1588 *"Goraintzi" itz uts! mandatarintzat bi putz.*
- 1589 *Itxura ona, barrena txarra.*
Sagar asko bezela.
- 1590 *Yayin (jaiean) lan egitten duna, San Silbestre egunean pantalon zarrakin.*
San Silbestre abenduaren 31'an; urtearen azken eguna. Geroztik alako
kristauak ez du urte-bidean irabazi aundirik egin.

- 1591** *Mal gobierno den etxea, asto kirallako eltzea.*
Kiralla = zangoa, anka.
- 1592** *Martxo sugea, berrogei eguneko ekaitza.*
- 1593** *Ongi oittua, ongi ezin bizi.*
Alperkerian eta nai duena egiñez bizitzera oitua.
- 1594** *Pobre lan, a(g)udo yan: traje zarra soñean, ta sonbrero zarra buruan.*
- 1595** *Zor ona baño obe artzeko txarra.*
- 1596** *Zurigiñaren etxean eskallera zarrak.*